

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko urtarrilaren 11 / 233. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Kultur teknikari berria** 05
- **KIROLA Gabonetako areto futbol txapelketa** 09
- **AIAKO BERRI Ane Maite Manterola** 10
- **IRITZIA Unai Manterola** 20
- **MOILA BAZTERRETIK Ainara Peña** 21
- **HERRITARRA DJ Illarras** 25



Kooperazioa hizpide Nerea Lopetegirekin

Hiru urte eta erdi dira Nerea Lopetegi ingeniari gaztea Afrikako Tantzaniara abiatu zela kooperante gisa. Berarekin izan gara han duen zereginaz hizketan.

libe
dietista
nutrizionista

dietetika eta elikadura aholkularitza zentro BERRIA

Libe Gomara - Eusko Gudari 25, barria Nafarroa Ibaia
Tel: 943 21 86 20 - 943 83 61 91 - libe@libegomara.com

- + Dieta personalizatua: kirolariak, haurrek, gazteak, 3. adinekoak, haundirikada, menopausa...
- + Osoan arazoak izaten diren dietak: diabetes, dabiak, gaiztasun berrak...
- + Gorpuz kontrola eta nesketak: gilar, gazte eta urte portzenak...
- + Ordu jario, itxerako pizgarriak...
- + Menuak planifikazioa...

GOZATEGI
FRUTA-DENDA

Eusko Gudariak 11
943 83 12 81

Nahikari

HAUR DENDA
TIENDA DE PUERICULTURA

Arrieta kalea, 35
20100 - Orrio
Tlf: 943 83 56 80
www.nahikari.es

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañondo pl. 8 Orrio

Tel: 943 00 42 44
943 83 51 91

ITSAS MENDI

gutisiak

Eusko Gudari, 5 • Tel. 943 248 774 • ORRIO

PRATIKARRIA: Gaithele, Aizpea eta Nafarroa Mendakari
NUTRIZIONISTA: Gaithele Aizpea

sinergia investigación fisioterapia

Ibañondo, 1, behe-oina | ORRIO | 943 13 06 77 - 606 71 86 96

ATC TORREALDAY, S.L.

Aholkulari eta kontsultoreak

fiskal, kontable eta merkantila
lan kontuak eta sozialak
juridikoak
finantzaritza

Diru-laguntzak

enpresak, autonomoak eta ekintzaileak

Gestio kontsultoretza

estrategia eta zuzendaritza
ekonomikoa eta finantzaritza

Jabeen komunitateen gestioa eta administrazioa

Aseguru artekaritza

asegurua orokorrean / hizitza asegurua
asegurua Nafarroako hospitalarekin (AGUMSA)

Intenbide finantzaritza

zoru bategitza
hipoteka maileguak
etxebizitza erosketak
hipoteken subrogazioa

OLARIAGA AHOULKULARIAK, S.L.

Bevoadale 4, barria, 20810 Orrio

Tf: 943 13 37 20 / 943 89 49 38

e-maila: olariraga@olariraga.com / orrio@atctorrealday.com

faxa: 943 83 52 98

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@topagunea.com

Editorea

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabbarri

Erredakzio burua

Patxi Uranga

Erredakzio taldeaLore Berasaluze, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Ana Iturain,
Eneritz Odriozola eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Patxi Uranga

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Kontxita Eizagirre, Unai Manterola,
Marta Pineda eta Antonio Zumeta**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakJosu Lizarralde eta
Itziar Aiestaran (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esaneren edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Urte berriko komeriak

ANE AGIRRE**1**


Asmo on asko ditut
urte hontarako:
zazpi kilo nahi ditut
galdu martxorako
gorputza lirain jarri
albokoantzako
sufritu beharko det
hoi dana lortzeko.

2

Lenengo egunean
polideportibon
jende ugari dabil
korrika rodillon
ze izerdi kiratsa
danari darion
hobe etxera joan
eta bertan egon.

3

Printzipe urdina re
aurkitu nahi nuke
baldintza gutxi ditut
hari eskatzeke
begi urdinak eta
dirua baluke
ezkonduko nintzake
beste ezeren truke.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@topagunea.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Irailak 15

Tibur Etxeberria pilotaria munduko txapeldun geratu zen AEBn (Ameriketako Estatu Batuetan), San Frantziskon. Denbora pasatu da, eta bi omenaldi xume bezain politak izan ditu, pilota elkarteak eta herriko eragileek egin dizkietenak.

Udalak noiz egingo dio zerbait? Udalarentzat herriko kirolari guztiak berdinak al dira? Non dira kirol zinegotzia eta kirol teknikaria zerbait antolatzen? Ez al du dei bat ere merezi zoriontzeko?

Hori baino gehiago merezi duk, Tibur.

IÑIGO TAPIA

Mila esker, bihotzez

Talai Mendi dantza eskolako hiru andereñoek lerro hauekin, aurten gurekin ikasten hasi den taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu, Herribil ekitaldian eman zigun ezuste atseginagatik.

Dena den ez ditugu ahaztu nahi, urtez urte kurtso hasierako deialdiari kasueginez, gurekin ikasten jardun diren herritar guztiak.

KORO, MILA ETA MARI KARMEN

Futbol zelai azpiko garajeak

Orioko Udalak idatzitako eman zuten argitara 2007ko abenduaren 13an, Mendibeltz futbol zelaiaren azpiko garajeak salgai jartzeko aukerari buruzkoa. Bestalde, 2008ko udal

aurrekontuetan partida bat dago izendatuta, sarreraren atalean, garaje horien salmentatik sortuko den dirua jasotzen duena.

Gai hori dela eta, honako hau jakinarazi nahi diegu oriotarrei:

1.- Garaje horiek ilegalak dira, Muntoko plan partzialaren barruan daudelako eta plan partzial hori oraindik onartu gabe dagoelako (zaila da, gainera, plan hori, azkenean, onartua izatea, zeren eta urpean geratzeko arriskua duen inguruan baitago, hamar urtez behingo maiztasun aldiarekin, Autonomia Erkeidegoko Ur Zuzendaritzak 2007ko urtarrilaren 22an egin dako kartografiaren arabera).

2.- Eraikuntza mota horiek ez datoz bat, inola ere, Europar Parlamentuak 2007ko apirilaren 25ean onartutako Uholdeen Bilakaera eta Gestioari buruzko Zuzentarauarekin eta, ezta ere, honako arauarekin: Autonomia Erkeidegoko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saileko Ur Zuzendaritzak 2007ko maiatzaren 17an ezarritako Luraren Erabilpen Erregimena eta Irizpideak, urpean geratzeko arrisku mailaren arabera. Kontuan hartu behar da, bereziki, aparkaleku horiek zero kotatik behera daudela eta itxitura metalikoak dituztela.

3.- Herrian 1.500 sinadura bildu ziren, bere garaian, Udalarik eskatuz aparkaleku horiek publikoak, txandakakoak eta ez-doanekoak izatea.

Ardura falta iruditzen zaigu garaje horien salmenta iragartzea, horrenbeste irregulartasun daudela.

ARKUPE MERKATARIEN ELKARTEA

Esker ona

Orioko Merkataria, Ostalaritza eta Profesionalen Elkarteak, Arkupek, poza agertu nahi du Olentzeroren etorrerako festak eta abenduaren 31ko ekitaldiek izan zuten harrera onagatik. Eskerrak eman nahi dizkiegu Olentzerori, haren laguntzaileei, Egunsenti otzoteari eta oriotar guztiei, herrian sortu zuten giro bikainagatik.

Ekitaldi horiek Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren diru laguntzarekin antolatu ditu Arkupek.

Eusko Jaurlaritzak ondo dioen bezala: Merkataritza dagoen lekuan bizitza dago.

ARKUPE MERKATARIEN ELKARTEA

Harribili, eskerrik asko!

Abenduaren 29an, Harribilek jaialdi bat prestatu zuen Orioko kiroldegian Herribil izenekoa. Zer izango ote zen, kuriositateak jota bertara hurbildu nintzen. Jaialdian, tartekatuz ematen zituzten dantzak esketxeekin.

Esketx batean bi arraunlari irten ziren, bat Kortarena egiten eta bestea arraunlari gazte bat errepresentatzen. Han ari ziren biak herrian kirolak zuen garrantziaz eztabaidatzen eta, bat-batean, nire izen-abizenak entzun nituen.

Ondoren, eszenara jaisteko eskatu zidaten, oroigarri batzuk jaso nituen dantzarien eskutik eta dantzan egin zidaten. Ez nuen horrelako ezer espero, baina poztu nintzen jendea egin zidan harre-

rarekin, ez bainekien jendeak nire kirol ibilbidea ezagutzen zuenik horrela saritzeko.

Lerro hauek omenaldi xume hura egin zenidaten guztioi eskerrak emateko idazten ditut, bertan parte hartu zenutenoi, ikusle... denei, mila esker.

TIBUR ETXEBERRIA

No futxur!

Urte berri on.

Jakina da Orion etxebizitza arazoa larria dela, gazteok etxebizitza eskuratzeko ahalbiderik ez dugun bitartean beste batzuk bi edo gehiago dituztelako beharrik gabe.

Gizarte hau jabego pribatuaren mamuak harrapatu-rik duen bitartean, etxebizitzak, eskubide izateari utzi dio. Eta oinarriko lehen esku-bidea bizitza bada, nola bizi gaitezke etxebizitzarik, hezkuntza publikorik, adierazpen askatasunik, lanpostu duinik... gabe?

Hori dela eta, jakinarazi, Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladok egoera hau salatzen deialdia luzatu dugula urtarrilaren 11rako, Zarautzen: *Etxebizitza luxu bat denean, okupatzea ez da delitua! Zuen etxebizitza politikarekin... no futxur!*

GAZTE ASANBLADA

Akatsak zuzenduz

KARKARAREN 230. eta 232. zenbakietan, nahastuta, testua eta argazkia errepikatu genituen Ikasle idazleen atalean.

Barka endredoak.

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getartako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardanegi,
Arabar Errisxoako ardoak.

Eusko Guda, 46. ORIO • 943 83 03 88 / 83 59 52 • E-posta: bodegeserrasti@euzkumet.net

BORDATXO

Platso goxo-gozotz

Tel: 943 13 30 14

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

UHAINA ATXOTEGIK BETEKO DU, ALDI BATEZ, KULTUR TEKNIKARI LANPOSTUA

Udal teknikari berria dugu urtarrilaren 2az geroztik

Uhaina Atxotegi da Udaleko kultur teknikari berria. Gaztea urtarrilaren 2an hasi zen lanean kultur etxeko bulegoan.

Urtea hastearekin batera kultur teknikari berria du Udalak. Urtarrilaren 2an hasi zen lanean, kultur etxeko bulegoan. Atxotegik 29 urte ditu eta Donibane Lohitzunen jaio zen, nahiz eta, gaur egun, Donostian bizi den. Aurretik, Elhuyar fundazioan, Euskaldunon Egunkarian eta Berria egunkarian aritua da, besteak beste.

Iñaki Gurrutxaga donostiarrak dauka, berez, kultur teknikari lanpostua jabetzan; baina eszedentzia eskatu zuen, orain lau urte, Donostiako Udalerako hautagai jeltzalearen, Roman Suduperen, lan taldean aritzeko. Orduetik hona, Jabier Zabaleta euskara teknikaria aritu da Kultura sailean, haren ordean. Gurrutxagak eszedentzia beste lau urtez luzatzea eskatu zuen iaz eta, hori ikusita, Udalak erabaki zuen deialdia egitea, tarte horretan kultura eta festetako lanak egingo dituen teknikaria hartzeko.

28 LAGUN AZTERKETAN

Orioko kultur teknikari lanpostua betetzeko deialdian 73 lagunek eman zuten izena; baina, horietatik, 28 bakarrik aurkeztu ziren azaroaren 17an izandako probara, tartean zortzi oriotar. Lanpostuarekin lotutako galdera praktiko sorta erantzun behar izan zuten hautagaiek. Jon Carrera udal idazkariak, Jon Redondo alkateak, Noemi Ostolaza kultura batzorde buruak, Mikel Izquierdo udal langileen ordezkariak eta Jabier Zabaleta euskara teknikariak osatu zuten epaimahaia.



Kultur etxeko lehen solairuan du bulegoa Uhaina Atxotegi kultur teknikari berriak.

KARKARA

ZINEGOTZI BERRIA

Udaleko kontuekin jarraituz, Iñaki Garcia Aranbarri izan-

go da aurrerantzean Oier Sarobe Escuderoren zinegotzi kargua hartuko duena.

Orioko Udaleko kultur teknikari lanpostua betetzeko deialdian 73 lagunek eman zuten izena; baina, horietatik, 28 bakarrik aurkeztu ziren azaroaren 17an izandako probara, tartean zortzi oriotar

Iñaki Gurrutxaga donostiarrak dauka, berez, kultur teknikari lanpostua jabetzan; baina eszedentzia eskatu zuen, orain lau urte, Donostiako Udalerako hautagai jeltzalearen, Roman Suduperen, lan taldean aritzeko

Beraz, EB-Aralar alderdiak dagozkion bi zinegotzi izango ditu berriro, legealdia amaitu bitartean.

UDALTZAIN GEHIAGO

Garcia Aranbarriena ez da herriko etxean emandako aldaketa bakarra izan, beste alor batean, udaltzaingoan, ere izan baitira berrikuntzak. Lau udaltzain gehiago izango dira herrian, bat ofizialordea eta emakumezkoak guztiak. Orain artean, hiru baziren, aurrerantzean 7 arituko dira lanean. Gainera, orain artean astegunetan bakarrik aritzen baziren, hemendik aurrera larunbat eta igandeetan ere lan egingo dute, goiz eta arratsaldean, 07:00etan hasi eta 21:00ak arte.

ALDIZKARIAK LAU ORRIALDE GEHIAGO IZANGO DU AURRERANTZEAN

Urte berria, asmo berriak esaera bete da Karkaran ere

Urte berriak aldaketak ekarri dizkio aldizkariari. Besteak beste, 4 orrialde gehiago izango du aurrerantzean KARKARAK.

Urteko lehen zenbakiarekin batera 4 orrialde gehiago izango ditu KARKARAK hemendik aurrera. Ondorengo lerrotan azalduko dizkizuegu arrazoiak eta asmoak.

ELKARRIZKETA-ERREPORTAJEA
Elkarrizketa edo erreportaje nagusiei orain artean eskainitako hiru orrialdeak motz geratu izan zaizkigu gehienera. Jorratu izan ditugun gaiak edo elkarrizketatutako herritarren kontakizunak nola edo hala kabituaraztea nekezagoa suertatu izan zaigu askotan, edukiari berari forma ematea baino; gehienetan, elkarrizketatuek esandakoen interesgarritasunak hori eta gehiagorako ematen zuelako. Pausoa ematea denbora kontua zen eta egin dugu. Aurrerantzean bi orrialde gehiago izango dituzte elkarrizketak eta erreportaje nagusiak.

PUBLIZITATEA

Argitaratzen dugun publizitate kopuruak ere zerikusi handia izan du erabakia hartzeko orduan. Aspaldi honetan, modulu berri gehiago sartzeko apenas lekuri gabe galbiltza. Tarteka, erakunde edo enpresaren batek orrialde erdi edo oso bat kontratatu nahi izan duenean, lau orrialde



233 zenbaki argitaratu ditu Karkarak sortu zenetik, orain 19 urte.

KARKARA

Azoka herritarron merkatu txikia izango da, salerosketa, eskaintza eta bestelakoen txokoa

gehiago sartu behar izan ditugu edo, ezinbestean, atalen bat kendu. Gure finantzazioan iragarkiek berebiziko garrantzia dute eta ez gaude toki fal-

tagatik ezezkoa emateko moduan.

ZERBITZUAK ETA AZOKA

Bukatzeo, doako iragarkiak eta garraibideen ordutegiak ere eskura izango dituzue azken orrietan.

Azoka izeneko atala herritarron merkatu txikia izango da, salerosketa, eskaintza eta bestelakoen txokoa. Zerbitzu xume hau aiarrei eta oriotarrei baliagarri izango zaizuelakoan jarri dugu abian. Ea hala den.

LABUR

LAN ISTRIPUA Ezbeharra

Iñaki Iturralde oriotarra hilik suertatu zen urtarrilaren 7an izandako lan istripuan. Ezbeharra, Nafarroako Cortes herrian gertatu zen kamioian zeramatzan xafla batzuk mugitzen ari zela gainera erori zitzaizkionean. Pertsona ezaguna herrian, urteak zeramatzan Iñakik garraiolari lanetan.

GERTAERA Lapurreta

Urtarrilaren 4ko goizaldean lapurreta izan zen Opil Berri okindegian. Ateko kristala hautsi eta barrura sartu ondoren, diru kutxa eta pisua, biak oso-osorik, hartuta ospa egin zuten lapurrek. Marixabel Etxeberria jabeak adierazi digunez, pisatzeko makina, behintzat, kalterik gabe azaldu zen, inguruetan.

KULTUR ETXEA Tutore berria KZgunean

Hainbat hilabete ardura-dunik gabe eman eta gero, tutore berria du KZguneak berriro: Jaione Agirre.

Oraindik asteko zein egunetan izango den zehazteko dagoen arren, bi astetik behin etorriko da Orioko KZgunera. Internet zerbitzuari dagokionez, berriz, lehen bezala jarraituko du aurrerantzean ere.



BENITO LERTXUNDIREN KANTALDIAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN

Herritarren partehartze handia Gabonetan

Ekintza ugari izan da herrian Gabonetan eta gehienek herritarren erantzun ona izan dute.

Udala, Arkupe, Txurumuski, herriko eragileak eta herritarrak izan ziren aurtengo Gabon jaietako jardueren antolatzaile.

EKITALDI ASKO

Plaza zen, hasiera batean, haurrentzako ekitaldietarako lekua. Lehen egunetan hotz handia egin zuen, ordea, eta horrek, jakina, jendea atzeratu egin zuen. Hori ikusita, kultur etxean egin zen azken saioa.

Azken bi urteotan menditik oinez etorri izan bada ere, itsasoz iritsi zen aurtengoan Olentzero herrira, Arkupe elkarteak gonbidatuta. Jende ugari zuen plazan zain, esku-titza emateko asmoz.

Kantuak eta musikak ere izan dute tarterik festetan. Salatxok elizan emandako kontzertura lagun ugari hurbildu zen. Abenduaren 24an, berriz, herritar asko ibili zen Gabon kantuan, bai goizean eta baita arratsaldean ere. Benito Lertxundiren emanaldia ere arrakastatsua izan zen, Kiroldedia bete egin zen eta sarrera guztiak saldu ziren. Hala ere, jende asko geratu zen sartu gabe, leku faltagatik. Herribil III. ikuskizunaren ere bete egin zen Karela. Muthi-



Ohitura den bezala, Gabon egunean etxez etxe kantari, eskean ibili ziren haurrak.

KARKARA

ko Alaiak taldeak ere ikusmina piztu zuen abenduaren 31n, eta lagun ugari bildu zen haien inguruan ttuntturroekin bezalaxe.

Bestalde, abenduaren 28an izan zen Jaiotza, Kantu eta Jantzi lehiaketan hamai-ka taldek hartu zuten parte. Mutil eta neska, 50 haur bildu ziren guztira.

Lehia estua izan bazen ere, Leire Manterola, Leire Fernandez, Inge Lertxundi, Aitor


Fernandez eta Ane Coladok osatutako taldea izan zen garaile. 2. postuan, berriz, hiru taldek berdinduta bukatu zuten. Hauek izan ziren: Naiara Larrañaga, Janire Perez Oliben, Lorena Beldarrain eta Janire Urkizu; Jon Barrene-txea, Aitor Larraza, Aitor Etxeberria, Mikel Uranga eta Aritz Hernandez; Leire Izagirre, Maria Azkue, Nora Rodrigex, Aila Manterola, Enara Larreta eta Olatz Dorronsoro.

Benito Lertxundik goraino bete zuen Karela kiroldedia, Oihana Alkorta oroitzeko eta arraunlariak omentzeko eskaini zuen kantaldi gogoangarrian

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33. behina - ORIO
Autobus parada ondoan



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

Gabon
TABERNA

Plater hotzak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09



Giro aparta izan zen Ibilbide osoan, mozorroturik eta ttuntturroen laguntzaz amaitu zuenik ere izan zen.

KARKARA

AITOR RUBIO ETA JAIONE GALDOS IZAN ZIREN HELMUGAN LEHENAK

Ia 200 korrikalari izan ziren San Silbestrean

Urtea kirola eginez bukatzeko, jai giroan egin zen abenduaren 31n San Silbestre IV. lasterketa.

195 korrikalarik parte hartu zuten San Silbestre IV. lasterketa herrikoian eta horietatik 87 emakumezkoak izan ziren.

Haurren artean ere, espe-ro baino korrikalari gehiago izan ziren. Izan ere, irteeran 60 inguru ume ateraz baziren ere, 80 izan ziren helmuga gurutzatu zutenak, azken metroak gurasoen laguntzaz

egin zituzten txiki asko izan baitzen.

GIRO APARTA

12:00etan eman zitzaion irteera lasterketari eta hasieratik giro aparta izan zen nagusi.

Ibilbideak zituen 5,5 km-ak mozorroturik egin zituenik ere izan zen tartean, peluka eta guzti. Karrera azkenak zetozen lasterkariak, berriz, ttuntturroekin batera egin zituzten azken metroak.

Lasterketa amaituta, salda izan zuten aukeran kirolariak

Arkaitz tabernak eskainita eta, kamiseta bana jasotzeaz gain, kirol materiala zozketatu zen parte hartzaileen artean.

PODIUMA

Hiru urtez garaile izan ondoren, bigarren geratu zen Migel Anjel Lizarralde *Altxerri*. Aitor Rubiok aurre hartu zion Bikamiota inguruan eta helmugara arte heldu zion aldeari. Emakumezkoetan, aldiz, Jaione Galdos oiartzuarra izan zen txapeldun, Sonia Alonsoren aurretik.

LABUR

SOFBOLA

Urazca OBB txapeldunorde

Hiru urtez garaile izan ondoren, bigarren postuan amaitu du Urazca OBBk *Nazioarteko Donostia Hiria X. Torneoa*. Horrekin konformatu behar, finala Krafft Atletico San Sebastianen aurka 12-2 galdu eta gero.

Sei partida jokatu dituzte OBB taldeko neskek guztira. Horietatik 4 irabazi dituzte, bat berdindu dute eta bakarra galdu dute: finala.

ARRAUNA

2008ko egutegia

Hondarribiako aulki mugikorreko jaitsierarekin hasiko da aurtengo arraun denboraldia. Urtarrilaren 19an izango da hori eta atzetik etorriko dira traineru jaitsierak ere: otsailaren 9an, Hondarribia bertakoa, eta 24an, Oriokoa. Batelek, berriz, otsailaren 24an izango dute lehen estopada, Trintxerpen.

ATLETISMOA

Erregetako krosa

Kamel Ziani seigarren helmugaratu zen Erregetako Nazioarteko Krosean. Uliako Gimnastica taldeak antolatzen duen proba hori urtarrilaren 6an izaten da urtero, Donostian.

jaletxea
logelak
gazteategi
Elkano auzoa
943 13 16 06

ERROTA

- Ertei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

H ✂ ★

Tfnoa: 943 83 54 65

AHOLKULARITZA
Fiscale, labortza, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

ESKUBALOIA

Selekzioan

Ander Atorrasagasti eta Jon Azkue oriotar gazteak eskubaloiko Euskadiko selekzioarekin bilduta izan dira Gabon jai hauetan. Abenduaren 26tik 30a bitartean Gasteizen izan dira kontzentrazioan. Urte zahar eta Urte berri eguna etxean pasa ondoren, Vigora abiatu ziren infantil kategoriako Espainiako Txapelketa jokatzera.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Urtarrilaren 3an izan zuten lehen partida, Vigoko Isevi pabiloian. Andaluziarren kontra jokatu zuten lehen lehia eta 11 tontogatik galdu zuten euskaldunek. Gainontzeko partidei dagokionez, jokatu-tako lau lehiatetik bi irabazi dituzte: Kantabria eta Gaztela Mantxaren aurka. Gainontzekoetan aurkariak gailendu zaizkie: Galizia eta Katalunia. Hala ere, oso gustura ibili direla adierazi dute bi oriotarrek.

FUTBOLA

Gorabeherak jardunaldian

Nahi baino puntu gutxiago ekarri dituzte herriko taldeek azken jardunaldian. Regionalek bana berdindu zuten Mutrikuren aurka eta 14. postuan daude sailkapenean. Jubenilek etxera ekarri zituzten 3 puntuak, Burumendi taldeari 1-2 irabazita. Infantilek, berriz, 0-1 galdu zuten Astigarragan.

ZORTZI TALDE IZAN DIRA ARETO FUTBOLEKO LEHIAN

Altuna Autoak irabazi du Gabonetako txapelketa

Altuna Autoak talde zarautzarrak irabazi du Gabonetako Areta futbol V. Txapelketa. Bigarren izan dira Tiki-Taka taldekoak.

Urtarrilaren 6arekin bukatu zen Gabonetako Areta futbol V. txapelketan Altuna Autoak taldea izan zen garaile. Partida bat galdu eta bestea berdindu eta gero (penaltietan irabazi zuten lehia) sailkatu ziren finalerdietarako. Handik aurrera, ez zuten hutsik egin.

TALDE GUTXIAGO

Zortzi taldek eman zuten izena txapelketan: Euromarkafetegia, Tiki Taka, Trota, Benta, Altuna Autoak, Xixario, Unar Pool eta Plastigaur. Iaz baino hiru talde gutxiago izan arren, pozik agertu da Alberto Casado eta Migel Miera txapelketako antolatzaile eta epaileak. Izan ere, beren hitzetan, Gabonetako ekintzak zirela eta pistarekin arazoak izan dituzte eta zailagoa egin zaie txapelketa ondo antolatzea: *Hala ere, ondo atera da dena. Jokalarien artean giro bikaina izan da nagusi. Harmailetan ere ikusle ugari izan da eta oso ondo erantzun dute. Gainera, gizonzkoen artean emakumezko bat izan da aurtengoa: Saioa Urdangarin, Benta taldean.*

AZKEN PARTIDAK

Urtarrilaren 4an jokatu ziren finalaurrekoak. Tiki Taka Xixarioren aurka lehiatu zen (3-



1-2 gailendu zitzaion Altuna Autoak Tiki-Takari finalean.

KARKARA

4) eta Trotak taldeak, berriz, Altuna Autoakekin neurtu zituen indarrak (1-2).

Xixario eta Trotak taldeek 3. eta 4. posturako lehia izan zuten Errege egunean, urtarrilaren 6an. Trotak lortu zuen 3. postua, aurkariari 7-1 irabazita, 100 euroko saria eta trofeoa eskuratuz. Xixariok, aldiz, trofeoa jaso zuen.

Tiki Taka eta Altuna Autoak taldeek final estua jokatu zuten. Banako berdinketarekin luzapena jokatu behar izan zuten. Bigarrenak lortu zuten azkenean aurtengo txapela 1-2 irabazita. 500 euro eta trofeoa eskuratu zituen. Txapeldunordeak, berriz, 250 euro eta trofeoa eraman zituen etxera.

Igo zaitoz haize berrietara!

Galerna I

943890416-677149932
galerna1orio@hotmail.com

TRAGOXKA
PUB

pubtragoxka@hotmail.com
Arizaga, 11 tel. 943 13 22 36

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

ANE MAITE MANTEROLA | ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA

“Lehiaketa aitzakia polita izan da auzoak bisitatzeko”

Ane Maite Manterolak jaioterrian eman ditu Gabonak, Iriondo baserrian. Italiara itzuli aurretik berarekin izan gara argazki lehiaketan jasotako saria aitzakia hartuta.

Argazki onenaren saria jaso duzu, bi aldiz segidan. Asko aritzen zara kamerarekin?

Gustuko dut argazkigintza, zalea naiz oso. Zarauzko institututik Madril jo nuen iInformazioaren Zientziak ikastera, eta dezente ikasi nuen gaiari buruz. Baina ikasketak utzi eta Italiara joan nintzenetik, afizio daukat argazkigintza. Oporretara edo edonora noala, aldamenean izaten dut, beti, kamera. Hala ere, oraindik karretearekin ibiltzen naiz, zenbait digitalen prezioa jaitsi zain nagoelako. Izan ere, kamera on bat ez baduzu, antzematen da irudiaren kalitatean.

Espero zenuen saria?

Sorpresa handia hartu nuen telefonoz jakinarazi zidatenean. Eta oraindik handiagoa KARKARA etxean jaso eta argazkia portadan zetorrela ikusi nuenean. Italiaraino iristen baita aldizkaria. Lotura handia dut Aiarekin, eta horrelako sari batek lotura horri eusten laguntzen dizu. Herrira itzultzen zarelarik, aspaldiko ezagunen bat etortzen zaizu eta esaten dizu irudia gustatu zitzaiola... harremanak indartzeko aitzakia polita izan liteke. Eta beste gauza polita, saritu guztiak, bat izan ezik, emakumeak izan direla da.

Hainbeste urte Italian, aiarren kategorian hartu zenuen parte. Nolatan?

Aiarra naizelako, ofizialki gainera. Batek baino gehiagok



Ane Maite iloba Koldorekin eta, aurrean, semea Ander.

KARKARA

Lotura handia dut Aiarekin, eta horrelako sari batek lotura horri eusten laguntzen dizu

pentsatuko zuen hori, 1992an joan bainintzen Italiara. Neronek aukeratu nuen Aian errol-datuta jarraitzea. Kontua da italiar nazionalitatea eskatuz gero, espainiarra galduko nuela bi estatuek kontu horietan ez dutelako inolako akordio-rik. Hortaz, ofizialki, Aiako biztanle izaten jarraitzen dut. Espainiako nortasun agiria

Aukera polita hainbat txoko beste begi batzuekin begiratzeko, merezi izan du, benetan

daukat, pasaporte ere bai... Semeek, Anderrek eta Ikerrek, berriz, biak dituzte. Euskal Herrikerik ez dugu ez dagoelako, bestela, huraxe izango genuke.

Saritutako irudia, non ateratu zenuen?

Etxe aldameneko zelaian. Sanjoan sua egin genuen seni-

deekin eta iloba Koldori esan nion parean jartzeko.

Iaz ere, bera ateratu zen saritutako argazkian. Berak egindako irudi bat ere argitaratu dute egutegian, oreinena hain justu, eta beste iloba baten argazkia ere argitaratu dute, ia familia osoa bildu digute egutegian. Hori egutegian, zeren argazkia egiteko ere, familia osoa inplikatu zen. Anaia, esaterako, sua egiteko garo bila abiatu zen traktore eta guzti.

Badirudi zorte ona ematen dizula ilobak.

Halaxe da, bai, kar-kar. Hori dela eta, hamaiketako agindua diot. Anaiari ere eskaini beharko diot hamaiketako, berak egindako surik gabe ez baitzen argazkirik izango. Baina uztailean beharko du, hona bueltatzen garenean.

Zein txoko duzu gustuko argazki ona egiteko?

Bizkar baserria, dudarik gabe, hemen goian dago. Aia osoa ikusten da handik, Zarautz, Orio... Gaur ere, han izan naiz lauzpabost argazki egiten Italiara itzuli aurretik. Zahartuta dago erabat, eta kaltetu samarra ere bai, baina polita da oso.

Bestela, aitzakia polita izan da lehiaketarena, herriko auzo guztiak bisitatzeko. Gaia horixe zen, *Aiako auzoak*, eta horrela ibili ginen. Aukera polita hainbat txoko beste begi batzuekin begiratzeko, merezi izan du, benetan.

Aurten ere aurkeztuko zara?

Berriro antolatzen badute bai; ea zein gai jartzen duten. Uztailean itzuliko gara eta hilabete eta erdi hemen emango dugunez, nahikoa denbora izango dut.

APIRILAREN 14TIK 20RA BITARTERAKO GAUZA ASKO ANTOLATU DIRA

Lardizabal eskolak 25 urte beteko ditu apirilean

Buru-belarri ari da egitaraua zehazten urteurrena antolatzeko sortu den komisioa eta jendeak parte hartzea helburu izango dutela azpimarratu dute.

Lardizabal eskola berriaren 25. urteurrena ospatzeko asmoz, apirilean astebete iraungo duen egitaraua antolatu du horretaz arduratuko den komisioak. Eskola 1982ko irailaren 12an inauguratu bazen ere, urtebeteko ospakizuna apirilaren 14tik 20ra zentratu nahi dute, egitaraua sakabanatu gabe, indarra ez galtzearren.

ASTEBETEKO OSPAKIZUNA

14tik 18ra bitartean hitzaldiak izango dira (euskarari buruz, herri txikietako eskolen inguruan... gaiak zeharo zehaztu gabe daude oraindik) eta eskolarekin lotutako gaiak ere landuko dituzte. Gero, asteburuan indarra eman nahi diote ospakizunari. 18an, ostiralarekin, azken 25 urteko bidea islatzen duen argazki erakusketa zabalduko dute, eta irekita egongo da maiatzaren lehenbiziko asteburua bitartean, lore azokara etorriko direnei ikusteko aukera emateko. 19an, larunbatean, afaria antolatuko dute ikasle ohi, irakasle ohi eta garai hartako guraso elkarte-ko jendearekin eta 20an pailazoak izango dira umeentzat. Antolatzaileek azpimarratu dute gonbita zabaldu nahi dutela 25 urtean eskolarekin harremana izan duten guztientzat.

ARGAZKI BILDUMA

Azken 25 urteetan eskolarekin lotura dituzten argazkiak (eskolan, irteeretan... hartutakoak) kultur etxera ekartzeko deia egin du komisioak. Konpromisoa hartu dute



Azken 25 urteetan egindako argazkiekin bilduma osatu nahi dute

KARKARA

Helburua da jendea inplikatzeko egingo den ospakizuneari, azken 25 urteetan eskolarekin lotura izan dituzten guztiek parte hartzea eta gozatzea.

fotoak lehenbailehen digitalizatzeko eta otsailerako jabe-ei bueltatzeko. Eskolan ere argazki-pilota dituzte, eta Joxemari Aiertza komisio kideak kontatu digu guztien artean aukeraketa egingo dela bai erakusketa egiteko, eta, ziurrena, DVD bat egiteko ere. 25 urteak iruditan erakustea ez ezik, beste helburuetako garrantzitsu bat da jendea animatzea parte hartzera:

Azken finean, helburua ez da bakarrik argazki bilduma egitea, baizik eta jendea inplikatzeko egingo den ospakizuneari, zabalatzeko modu bat. Jende gehienak parte hartzea nahi dugu: afarian, argazki bilduman (ekartzeko zein ikusteko), hitzaldietan... Horrela, nahiz eta ospakizuna apirilean izan, lehenagotik ere jendea hasiko da gauzak egiten eta giroa berotzen. Eta, horrekin batera, eskolarekin lotura izan duten guztiek egun horietan gozatzea nahi dugu.

KOMISIOA

25. urteurrena ospatzeko, komisioa osatu da: guraso elkartetik, 2 kide; Udalaren partetik, alkatea eta bi irakasle izango dira bertan. Aurreneko bilera egin dute ideiak jasotzeko, eta datozen egunetan gauzak zehazten eta lotzen joango dira.

LABUR

SALAKETAK

Isurketa Santio Errekan

Hildako arrainak azaldu ziren Santio Erreka auzoko industrialde inguruan joan den ostiralean. Salaketa SOS dei baten bidez jaso zen. Diputazioak ur laginak hartu zituen aztertzeko, eta oraindik ez dago jakiterik zer aurkitu zuten. Uraren kolorea eta egoerazertxobait aldatuta ikusten omen zen Santiotik gora, baina hildako arrainak auzoan bertan azaldu ziren.

Aingura lapurtu nahian

Hondarzalarenean lapurreta saiakera izan zen pasa den astelehenean. Badirudi aingura bat lapurtu zutela bi gaztek, baina jabeak aurre egin zien, eta denbora gutxira Ertzaintza iritsi zen. 21 eta 28 urteko gazteak atxilotu zituzten eta astelehen arratsaldean epailearen esku gelditu ziren.

PILOTA

Udaberrikoa hastear

Hastear dago Udaberriko gomazko paleta modalitateko txapelketa. Iaz bezala, Miguel Angel Eizmendi eta Jon Aizpuruk jokatu dute Aiako Kirol Elkartearen izenean, eta Joan Antonio Manterola izango dute ordezkari.

Eskolako 3 talde aurrera

Asteburu honetan hasiko da eskolen arteko Pilota Txapelketaren 2. etapa. Aiako 5. eta 6. mailako gaztetxoak hiru taldetan banatuta lehiatuko dira bertan: mutilen *Aiarrak 1* eta *Aiarrak 2* taldeak eta nesken *Aiarrak*.

AIAKO LEIHOA

Andaluziar bat Gipuzkoan

Orain dela egun batzuk artikulu batean irakurri nuen: *Inoiz gainetik kenduko al dugu euskaldunok hotzak, berekoiak eta tabuak dituzten pertsonen fama hori?* Horrek gogorazazi zidan nik izan nituen lehen inpresioak Gipuzkoara iritsi nintzenean, badira hila-bete batzuk.

Gogoan dut egun batean paseatzen nenbilela Donostian: umeak korrika alde bate-tik bestera, jendea kontu kontari, algarak, jolasak... ez dakit ziur zer pentsatu nuen, baina ez bairik gabe, jende hotza zirela ez behintzat. Andaluziarrak keinu asko egiten ditugu hitz egiterakoan eta horrek kanporakoiak izatearren fama ematen digu, baina posible al da eskuak mugitzea patriketan ez daudenean hotz dago-

elako edo aterkiari eusten? Tabuak? Ez dakit, ni naizen bezalakoa azaldu naiz, nire doinu andaluziarrarekin, eta ez dut inolako baztertzerik sumatu.

Alderantziz, nire lehen inpresioa euskaldunei buruz jende atsegina, gizalege zaleak, serioak, hizketan zuzenak... direla izan zen. Halere, eta adjektibo askoren gaine-

**Nire lehen
inpresioa
euskaldunei buruz
jende atsegina,
gizalege zaleak,
serioak, hizketan
zuzenak... direla
izan zen**

tik, atentzioa deitu zidan eguraldia bezain zuhurrak, diskretuak direla: urtaroak pixkanaka doaz bata bestearen atzetik, Andaluzian gertatzen ez den bezala, udak neguari lekua egun batetik bestera uzten diola, udazkenaren gainetik salto eginez.

Nire bigarren inpresioak lehenengoa baieztatu du, eta are gehiago Aian bizi naize-

**Naizen bezalakoa
azaldu naiz,
nire doinu
andaluziarrarekin,
eta ez dut
inolako
baztertzerik
sumatu**

netik, non auzotarrak elkarri kasu egiten diote egunon edo arratsaldeon esanez; haurrak, ardiak bezala, lasai ederrean ibiltzen dira bere kabuz; eta dena gizadiaren neurrian mugitzen da. Bazter guztietan bezala, fama aurretik joaten da eta askotan justifikatua dago, baina beste askotan ez; eta leku guztietan bezala bada jende atsegina, antipatikoa, altua, baxua, azkarra, torpea, eta abar.

Pentsatzen dut hirugarren inpresioa edo beste mila beharko ditudala iritzi objektiboagoa izateko. Bitartean, diskrezioarekin geratzen naiz, oso gustuko dut leiho bat edukitzea kale ondoan eta bizitza betea izatea hain ondo hartua sentitzen naizen lekuan.

MARTA PINEDA

TXOKOAK ETA JENDEA



Laura Mirena Albeniz Azkue

Laura Mirena Albeniz Azkue abenbuaren 13an jaio zen. 50 zentimetro luze eta 3,610 kiloko pisuarekin munduratu zen aiar txikia. Gurasoak, Luis eta Margari, txora-txora eginda omen ditu neskatoak. Esan digutenez, egun seinalatua aukeratu zuen Laura Mirenak jaiotzeko, santa Luzia eguna. Eguberrietako jaiak iristerako indartzen hasita egon nahi zuen nonbait.

Nerea Lopetegik hiru urte eta erdi inguru daramatza Tanzanian kooperante gisa. Gabon jaiak zirela eta bi aste eman ditu etxean eta baita tartetxo bat hartu ere gure galdera guztiei erantzuteko. KARKARA banatzen hasteko unean hegazkinean da, berriz ere Afrikara bueltan. Hona ingeniari honek kontatutakoa.

PATXI URANGA

Zenbat denbora da kooperante gisa Afrikara abiatu zinela?

Hiru urte eta erdi, 2004ko abuztuan iritsi bainintzen Tanzaniara. Aldaketa handia izan zen, baina ordurako mundu hori ezagutzen nuen pixka bat. Izan ere, aurretik, Madrilén bizi nintzelarik, Cabo Verde ere izan nintzen hilabete batzuk, gobernuz kanpoko erakunde (GKE) batekin lanean. Ondoren, Mugarik Gabeko Medikuen (MGM) elkartearekin aritzeko aukera suertatu zitzaidan Tanzaniako Pemba irlan, malariaren aurkako proiektu batean, koordinatze eta antolatze lanetan. Indiako ozeanoan dago Pemba, Zanzibar artxipiela goan. Zanzibar da toki horretako erreferentzia, turismo gunea baita. Pemba, berriz, behartsua da oso. Eta hara joan nintzen.

Zein izan zen zure zeregina?

Proiektua bukatu arte izan nintzen han, urte eta erdiz



KARKARA

NEREA LOPETEGI | KOOPERANTEA

“Ubideak egitea ez da nahikoa, ohiturak ere aldatu behar dira”

edo. Tratamendu berri bat martxan jarria zen inguru haietako malaria tasa altuari aurre egiteko asmoz, eta MGM taldeak horren gaineko formazioan laguntzea zuen helburu. Kontuan hartu behar da hainbat botikak ez diela inongo eraginik egiten lehenagotik erabilera okerra eman izan diotelako txertoari. Erakunde honek lan egiten duen tokietan, unean uneko ekimenez gain, "hondakin medikuen tratamendua" izeneko programa abian jartzen du beti. Eta horretan aritu nintzen ni.

Erraustegi moduko bat eraiki genuen, osasun zentroetan sortzen zen zaborra suntsitu ahal izateko. Bestalde, lur azpian zigilatutako zulo batzuk ere egin genituen xiringetako orratzak han sartzeko. Han, orratzak besterik gabe lurrera botatzeko ohitura handia dago eta kalean dabilzan haurrek ez dute ezta oinetakorik ere. Pentsa nolako hondamendia sortu dezakeen horrek ez badituzu xiringak nola edo hala desagertarazten.

Kontatutakoaren arabera, lehen inpresioak sekulakoa behar zuen.

Honetan hasi aurretik, urtero, Hegoamerikara bidaiak egiteko ohitura nuen. Hango bizi maila eta nolakoak ziren ondo ikusia nuenez, ez zidan hainbesterako inpresiorik egin Afrikak. Edo agian sekulako inpresioa egin zidan, baina denborarekin ohitu naitzelako pentsatzen dut ez zela hainbesterako izan, ez dakit.

Etxeokoe, lagunek... zer diote zure ibileren berri ematen diezunean?

Batzutan haluzinatu egiten dute zertan gabiltzan esaten diedanean, koadrilakoek esaterako. Iñaki Ibarbia laguna datorkit bat-batean burura. Aparejadorea da eta birgaitze edo saneamentu kontuetan kanalizazioen bat-edo nola egin dugun galdetu, eta batere ez zegoela erantzutean, seko harritu izan da. Kontuan hartu behar duzu gune batzuetan komunak ere egin izan ditugula ez zegoelako

ezer, eta jendeari beharrak bertan egitearen garrantzia azaldu behar izan diogula.

Proiektu gehiagotan ere hartu duzu parte, ezta?

Hiru esperientzia izan ditut. MGMrekin lehenengoa, Pemban. Proiektua bukatuta irlatik alde egin zuten. Gustura nengoen han eta bertan lanean zegoen erakunde batekin geratzea erabaki nuen, *Danish International Agency*-kin (Danida). 8 hilabetez egon nintzen mantentze departamentuan, aholkulari bezala. Danidak ez du MGMk adina laguntza jasotzen eta igartzen zen hori. MGM erakundeetan handiena da eta jasotzen dituen laguntzei esker, publikoak zein pribatuak, erabaki dezakete non eta zertan lan egingo duten. Gero, badira hainbat erakunde laguntza publikoa bakarrik jasotzen dutenak eta horrek asko mugatzen du.

Orain, iazko apiriletik hona, Mugarik Gabeko Ingenieritza taldearekin (MGI) ari naiz, Afrikan bertan. Espainiako erakundea da eta laguntza publikoa baino ez dute jasotzen. Laguntza horiek gainera, epe mugatu baterako dira.

Epe mugatuarena azaltzerik bai?

Gertatzen da, hemengo erakundeek laguntza hemengo mentalitatearekin ematen dutela. Adibidez: *Tori hainbeste mila euro hau eta beste egiteko. Hori bai, epe honetan emaitzak ikusi nahi ditugu.*

Ez dute kontuan hartzen bizitza erritmoak erabat desberdinak direla han eta, gainera, kasu askotan, ez dela nahikoa zerbait eraikitzearekin. Adibidez, orain uraren saneamentu kontuetan gabiltzatza, eta horez da nahikoa ubideak egitea. Jendearen ohiturak aldatzea ere behar beharrezkoa da. Eta hori ezin da eztaikit zenbat hilabetetan egin. Ondorioz, proiektu bakar bat hasi eta bukatu ahal izateko jasotzen ditugun laguntzak imajinazio handiarekin



kudeatu behar izaten ditugu gehienetan, faseka banatuz. Pentsa, orain bukatzen ari garen proiektua 2001ean hasi zuten. Eta aldaketak egon dira, baina denbora behar du oraindik.

Ez litzateke praktikoagoa, erakundeetako ordezkariak hara joan eta egoera berta-

tik bertara ezagutzea, horrelakoak ekiditeko?

Praktikoagoa litzateke, bai, dezente erraztuko luke gure lana. Baina hor politika kontuetan sartuko nintzateke eta ez da hori nire zeregina.

Zertan ari zara uneotan?

Ni nabilen erakundeak hiru proiektu ditu esku arte-



KARKARA

an. Karatun, Arushako eskualdean; Samen, Moxi eskualdean eta Kigoman hirugarrena, Tanganika lakuaren inguruan. Ni Karatukoan ari naiz eta hori da bukatzear duguna, martxorako espero dut. Besteak, bata 2004an eta bestea 2006an hasi ziren. Horretaz gain, hiriburuan bulego nagusia daukagu, ministeritzekin

elkarlanean aritzen dena. Nire kasuan, uraren ministeritzarekin tratatzen dugu.

Zer moduzko harrera izan duzu joan zaren tokietan? Orain arte oso ondo hartu izan naute, eta gaituzte. Gainera, badakite horrelako erakundeak laguntzeko asmoarekin joaten garela. Ez du bate-

TANTZANIA

“2004ko abuztuan iritsi nintzen Tantzaniara. Aldaketa handia izan zen, baina ordurako mundu hori ezagutzen nuen piska bat. Izan ere, aurretik, Madrilen bizi nintzelarik, bolondres gisa aritua nintzen jada eta Cabo Verden ere izan nintzen hilabetez, GKE batekin”

LEHEN PROIEKTUA

“Erraustegi moduko bat eraiki genuen, osasun zentroetan sortzen zen zaborra suntsitu ahal izateko. Bestalde, lur azpian zigilatutako zulo batzuk ere egin genituen xiringetako orratzak han sartzeko”

ERAKUNDEEN LAGUNTZAK

“Hemengo erakundeek laguntza hemengo mentalitatearekin ematen dute. Adibidez: *Tori hainbeste mila euro hau eta bestea egiteko. Hori bai, halako epean emaitzak ikusi nahi ditugu.*

Ez dute kontuan hartzen bizitza erritmoak erabat desberdinak direla eta gainera, kasu askotan, ez dela nahikoa zerbait eraikitzearekin”

JENDEAREN HARRERA

“Orain arte oso ondo hartu izan naute, eta hartu gaituzte. Gainera, badakite mota honetako erakundeak laguntzeko asmoarekin joaten garela”

INGURUKOEN ERREAKZIOAK

“Batzutan haluzinatu egiten dute zertan gabiltzan esaten diedanean, koadrilakoek esaterako”

re zerikusirik Temban izan nintzeneko garaiak eta azken aldikoak, baina ondo.

Ezagutu dugu Somalian bahitutako erizainen kontua. Arriskurik somatu duzu inoiz?

MGMekin nenbilela bizi izan nuen halako arrisku egoera bat, hiru hilabetez edo. Ezer

baino lehen argitu behar da MGM arrisku handiko guneetan aritzen dela, gatazka dagoen tokietan eta larritasun egoeren aurrean laguntza ematen. Oraingoa, berriz, oso bestelako guneetan aritzen da, garapenerako laguntza behar duten lekuak baitira bere lanaren ardatza. Kontua da, Pembani nengoela,



2005eko urrian, hauteskundeak izan ziren Tantzianian eta Zanzibarren. Bietan, alderdi berak du boterea, baina oposizioak ere sekulako babesa du. Zanzibar estatu autonomo modukoa da, bere gobernu, eskumen eta guzti. Aurrekoetan, 1995ean eta 2000an, irregularitateak izan ziren eta baita sekulako istiluak sortu ere, hildakoak eta guzti. Giza eskubideen zapalketa handia izan zen, gobernuak eta ejerzitoak nahizuten guztia egin zuten nazioarteko begiralerik batere ez zego-

elako. Akaso irabaziko zituzten hauteskundeak, baina, beldurratik edo arriskurik ez hartzearen, tranpa egin eta ondorioak izugarriak izan ziren.

Nazioarteko Gurutze Gorria besterik ez zen han izan. Hortaz, egoera zen denek zekitelako zerbait gertatuko zela. Abian genuen malariaren aurkako proiektua aldi batez eten eta emergentzia egoera bati aurre egiteko prestatu ginen. Erabat aldatu zitzaigun dena: kaleak militarrez bete ziren, jendea xaxatzen zuten... Etxe-

tiklanera eta alderantziz besterik ezin genuen egin. Alderdi eta eragile guztiekin alde aurretik bildu ginen esateko erakunde neutrala ginela eta edozein herritar laguntzea zela gure asmoa, edozein alderdi edo ideiatakoa zela ere. Gurutze Gorriarekin elkarlanean, lehen laguntzetarako eremua prestatu genuen. Zorionez, azkenean, ez zen aurreko urteetakoa gertatu.

Bertan geratzeko gogorik geratu zitzaizun?

Berekoia izanda, sekulako

esperientzia izan zen. Baina baita oso gogorra ere. Hauteskundeen ondoreneko protestatan, ospitaletik autoan ateratzeko sekulako neurriak hartu behar genituen. Nola edo hala nabarmendu beharra genuen medikuen autoa zela gurea, *check point* edo militarren kontrol postuetatik pasako baginen. Etengabe irratia bidez non ginen ere informatu behar genuen... Urtebete neraman Tantzianian eta txuritik beltzera aldatu zen guztia, sineskaitza. Atxilotetak ere izan ziren, bi hil-



ARGAZKIA: NEREA LOPETEGI



dako Temban, tortura kasuak... Denetarik egin genuen, torturatuen testigantzak jaso...

Biastera edo, egoera baretuzenean, malariaren proiektuari ekin genion berriro. Hiruzpalau hilabete izan ziren, baina seko aldatu zidaten bizitza.

GKE zenbaitetan ustelkeria kasuak atzeman dituzte. Nolako eragina dute horrelako berriek zuen lanean?

Azkenekoz etorri nintzeanean entzun nuen zerbait.

Egia esan, han zaudelarik ez duzu horrelakoen berririk izaten. Hemen, berriz, denetarik irakurri eta entzun nuen. Gauza guztietan bezala, ezin da orokortu. Hemen ere agertzen dira makina bat kontu, dela industrian edo beste hainbat alorretan.

Nire esperientzia oso bestelakoa da. Dugun lan egiteko modua ikusita, zaila ikusten dut gurean horrelako kasurik eman ahal izatea. 20 xentimoko gastua egiten dugula ere, ziurtagiriak aurkeztu behar izaten ditugu. Eta

ARRISKU EGOERAK

“2005. urtean abian genuen malariaren aurkako proiektua aldi batez eten eta emergentzia egoera bati aurre egiteko prestatu ginen. Egoera erabat aldatu zitzaigun: kaleak militarrez bete ziren, jendea xaxatzen zuten... Etxetik lanera eta alderantziz besterik ezin genuen egin.

Atxiloketak ere izan ziren, bi hildako Temban, tortura kasuak... Denetarik egin genuen, torturatuen testigantzak jaso...”

USTELKERIA KASUAK

“Dugun lan egiteko modua ikusita zaila ikusten dut gurean horrelako kasurik eman ahal izatea. 20 xentimoko gastua egiten dugula ere, ziurtagiriak aurkeztu behar izaten ditugu. Eta askotan ez da batere erraza zenbait tokitan ez dutelako agiriak egiteko baliabiderik ere”

ETORKIZUNARI BEGIRA

“Oraingoz gustura nabil. Tarteka pentsatu izan dut berdina egiten jarraitzea, baina hemen, bestelako zereginetan. Zeren hainbeste denbora kanpoan emanda, lotura asko galtzen duzu hemengoarekin”

ORIORA BEGIRA

“Ez da harritzekoa, batez ere kontuan hartzen baduzu 13 urte egitera noala Oriotik kanpo eta urtean behin, edo bitan, etortzen naizela. Askok aldatzen ari da, bai”

askotan ez da batere erraza zenbait tokitan ez dutelako horretarako baliabiderik ere.

Inoiz pentsatu duzu koope-razioa uztea?

Oraingoz gustura nabil. Tarteka pentsatu izan dut gauza bera egiten jarraitzea, baina hemen, bestelako zereginetan. Zeren, hainbeste denbora kanpoan emanda, lotura asko galtzen duzu hemengoarekin.

Aurtengoa, adibidez: lau urte baziren Gabonak etxean ematen ez nituela. Bi astera-

ko etorri naiz, eta, ohitzera-ko, joateko momentua ailegatu zait.

Bukatzeko, nola ikusi duzu herria?

Koadrilakoek, anaiaketa ahizpak... esaten didate etorri aurretik: *Beldurtuko zara aldetak ikusita!*

Eta ez da harritzekoa, batez ere kontuan hartzen baduzu 13 urte egitera noala Oriotik kanpo eta urtean behin, edo bitan, etortzen naizela.

Askok aldatzen ari da herria, bai.

ADARRETATIK HELDUTA

Urte zaharrari sei ezpata

Txikia nintzeneko oroitzapen bat datorkit gogora. Urtearen bukaera aldera bi kasete kale-ratzen ziren urtero (oraindik ere bai behar bada), urte hartako kantu entzunenekin (eta kutreenekin, gehienetan).

2007an izan ditudan bizipenen laburpen bat egitera noa. Oroimen historikoa, historia hurbila biltzetik zertzen omen da eta.

1. Abenduaren 31n hartu nuen Aia eta Orioko kristau elkarten ardura. Sekula egin gabeko lana. Erronkak asko, gaitasunak ahal direnak. Hirurogei bat hileta, hirurogei bat bataio... elkarrizketa asko, harremanak mila. Bi herri. Bi nortasun. Bi aberaspide. Ehun egunetara egiten omen da lehen azterketa. Hirurehugarrena ere pasa eta esan nezake kostako zaiela ni hemendik ateratzen.

2. Martxoan zendu zen Andres Garmendia. Niretzat bezala askorentzat maitagarria eta, beraz, mingarria haren heriotza. Ikasbide bat milaren artean utzi zigun: gaixotasunari *hi ez haiz ni baino gehiago* esatean. Gaixotasunak eraman zuen bera, baina sekula ez zion itzali bizitzeko gogo, irribarrea eta itxaropena: hain itzalia dugun itxaropena.

3. Hauteskundeak izan ziren maiatzean. Indar berriak bi Udaletan. Zerbitzari berriak edo zerbitzari izan behar luketenak bi herrietan. Politika ez da nirea.



UNAI MANTEROLA
APAIZA

Badakite denek laguntzeko gaudela. Kritiko izateko ere bai. Entzuteko, baina esateko ere bai. Isiltzeko, baina isilik egoteko eskatzeko ere bai

Herrigintza bai. Badakite denek laguntzeko gaudela. Kritiko izateko ere bai. Entzuteko, baina esateko ere bai. Isiltzeko, baina isilik egoteko eskatzeko ere bai. Eska diezaiegun, exigitu ere bai, baina ahal dela begirunez eta ulermenez.

4. Bakea, bakerik eza, bake ametsa... Lurrean errozten ez den, kimurikernetzen ez zaion eta aizkoraz kolpeka darabilgun zuhaitza. Gandiaga handiaren poema datorkit burura: *Ez da nahi-*

koa zure bakea, ez da nahi-koa nirea. Ez da nahikoa nire bakea, ez da nahikoa zurea. Bakea ez da bakoizka bake, zuk zeurea, nik neurea; bakea ezin daiteke bake ez baldin bada gurea. Heriotzarik ez. Ezta zapalketarik ere. Barkamenaren bakea behar dugu. Bata bestearen tokian jartzean loratzen dena.

5. Bi liburu eder mahai gainean. Joakin Arostegiren memoria edo oroitzapenak biltzen dituena, batetik. Joxe Arregi Arantzazuko fraideak prestatua bestetik, *Jainkoaz galdezka* (Alberdania). Berrogei euskal idazleri Jainkoari buruzko bost galdera. Sinismendun, kristau sinismendun, agnostiko nahiz ateo-en erantzun bikain bezain sakonak. Aurten esku artean izan ditudan liburu pilatik onena.

6. Eguberriak. Gizarte laiko honetan kurioak gara inondik ere. EiTB (kristauok ere ordaintzen dugun komunikabidea) Elizarekin atakean ahal duen guztietan. *Niez naiz kristau* esaten duten asko eta asko (bihoakie nire errespetua) kalean. Baina Eguberriak aitzakiatzat hartuta kontsumoa gora. Kontsumoaren iragarkiak telebistaren Eguberri. Inkoherentzia laikoaren argiak gau on orotan kaleetan.

Sei epai. Sei hausnar-keta edo hausnarbide. Sei ezpata (Mendiluze txapeldunari zorionak!). Urte berri on. Izan dezagula 2008a ahal bada hobe.

NIRE HONETAN

Bero-bero, hotz-hotz

Ai, ama! Txikitan haserrea, eta orain barrea eragiten didan esaera zahar bat galtzear dugu. Jaun-andreok, garaiak aldatzen ari dira, ez dago batere zalantzarik.

Zuenean ez dakit, baina gure etxean gauez sesioa izaten genuenean, *ipurdia bero-bero eginda joango zara ohera* batekin amaitzen ziren istiluak. Burua makurtu, eta maindire azpian sartzen genuen; bagenekien, bestela, zer festa izango genuen eta. Beno, agian, batzuetan, bi, hiru edo lau aldiz egin behar ziguten errietan, eta kobratuta ere joaten ginen batzutan, baina merezia genuelako izaten zen, *petardo* jartzen ginelako.

Orain, ordea, ipurdiko bat ematea ere galarazia dago. Hobe omen da seme-alabak bide onera ekartzeko borroka psikologikoa egitea: haurraren parera makurtu eta hitz egin, jostailuak kendu, telebista ikusi gabe egotera zigortu... Umea horrela heztea primerakoa litzateke, baina bakoitzaren erabakia izan dadila hori, ez inposatutako neurria. Ipurdikoak min gehiago egiten dio gurasoari haurrari baino.

Gauean *ipurdia hotz-hotz eginda eta konsolarik gabe joango zara ohera*, esan beharko da hemendik aurrera.

LORE BERSALUZE



MOILA BAZTERRETIK

Izan zaitezte Olentzero



AINARA PEÑA

Joan da 2007a eta sartu gara 2008an: San Nikolas, Santo Tomas, Gabonak... alaitasuna, kontsumismoa, erlijioa...

Gabon eskeak, Benito, Herribil... Milaka gai etortzen zaizkit burura, milaka gai konpontzeke aurtengorako ere, eta moila bazterreko filosofo utopikari tokatu behar urte

berriko *speecha* (erregeek maila bikaina erakutsi ondoren berean). Eta zein gai aukeratu pentsatzen nengoela... DANBA! Azken orduko berrietan torturak berriz ere. Baina... biktimak eta biktimak daude. Eta nahiz eta bakea, elkarrizketa eta borondatea izan politikariek hitzetik hortzera erabiltzen dituzten diskurtsoetan ez dira inondik ere fin ibili horretan, beste interes batzuk daude. Ikusiko dugu zer gertatzen den beste hainbeste gai polemiko eta sozialekin: AHTarekin; hezkuntza eta osasun zerbitzuekin, orain arteko etxebizitza politikak eragin dituen kalteekin; jasangarritasun ezak ekartzen dituen ondorio eta desberdintasunekin...

Hala ere, Olentzerok gauza on batzuk ekarri ditu, nire-

tzat behintzat bai. Nire utopiara gerturatzeko laguntzen didan urratsa. Gauza horien artean, herritar batzuen parte hartzea, batasuna eta sinisten dugun horretan lan egiteko gogoia daude. Gaur, Sparrren batek esan didan bezala, nahi ditugun asmoak lortzeko, geronek hasi behar dugu horiek jorratu eta indartzen.

Eta hori izango da 2008rako zabaldu nahi dudana asmoa. Argi dago bizi dugun garaian eskubide asko urratzen zaizkigula, eta gauzak aldatzeko ezin dugula besteak guregatik egin dezaketenen zain egon. Guk erabaki behar dugunon eta nola bizi nahi dugun, eta guk borrokatu behar dugu hori izateko.

Nik gogoeta sarri egiten dut eta saiatzen naiz horren arabera lan egiten egunero-

Gogoeta sarri egiten dut eta saiatzen naiz horren arabera lan egiten egunerokoan

Denoi gomendatzen dizuet ariketatxo hori egitea. Esfortzu piska bat eskatzen du baina oso aberatsa da, bai pertsonalki bai sozialki. Ea datorren urte honetan inork guregatik zerbait egiteko zain egon gabe, gauzak aldatzen laguntzen dugun.

Jokini KARKARAKIN kontratua ekarri zion Meltxorrek, Garbiñei Gasparrek etxea ta Torrotxori Baltasarrek ikatza bere klienteen izena ez jakitegatik. Nik Olentzerori nire asmoa betetzen jarraitzea eskatuko diot hurrengoan ere.

AMILIBIA
eNTZIOIAR, S. L.

larri pertsonen proiektu eta instalazioak

guz erabilko lekuetarako arazo-ontzek

Obstakagaitza auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Fuado Gudarri Kalea, 13-15
ORIO
943 83 38 75

taller mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.



urrutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

ACTIVA  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abentura, 6 - 10100 Oroquieta - 943 83 32 47
20080 OKIO

ITB

Bisaguren Industria Teknikoa, S.A.

Era guztietako bisagrak
Kazolelan gordetako bisagrak
Krisalezko ateen bisagrak
Bisagra automatikoak, etab.

Aranguren Industrialedea - Santiago auzoa
20180a Auzo (Gipuzkoa)
Tel. 943 83 05 08 - 29 Orrien - Telefax: 943 13 38 62

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekarria tel: 943 89 40 29
finka administratzailea faxa: 943 83 54 98
gestoria itsasadarra@itsasadarra.com

Ibai Ondo, 4 behea ORIO

ARKAITZ
Taberna
 Pintxoak,
 plater konbinaluak
 eta ogitarleko mundialak
 ABESLARI KALEA, 1 Tel: 943 83 16 57

ARIDATZA modus
 Euzko Gudariak, 7 Tel: 943 83 10 88 CF10

ALTXERRI *Karta eraberrina*
Asteburuan, eguraldi eta igurtan,
meru bereziak
943 83 07 62

Klikladenda - Ume arropa
argine
 www.lasonet.com/argine
 Tel. 943 13 48 89
25eko BESKONTUA FAMILIA
UGAKIEN TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU
 jatetxea
 Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

BEREZI
 moda eta osagarriak
edozein tokian BEREZI sentitzeko arropa
 Arrantza kalea, 3
 Tel: 943 89 05 29
 - Lois - Caroché - Guess? - Pepe Arellano - Jackpot - Diesel - Cotton Field -

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.
 Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.
 Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugkorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

Peluteria eta estetika mistoa

 - Tintak egonak eta koloreak naturalak
 - Deshehazketa eta irautkorra
 - Azkela/ esfoliantak
 - Pedicura
 - Depilazioa
San Nikaioa, 2 Tel: 943 83 31 70

Automóviles
ZARAUTZ
 CITROEN ZENTROU OFIZIALA
 Irteerak berrak
 eta irteerak
 berrak
ZARAUTZ. TEL: 943 13 13 50

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO
 Telefonoa: 943 13 04 38

Gure
Txoko
 Arriaga Kalea

IMANOL AGUIRRE MANTEROLA
ARKITEKTOA
 OBRA PROIEKTUA
 ETXE BERRIAK ERAKITZEO
 ZAHARREN BERRIKETA
 ETA BARRUTIA
 USANGAZI PROIEKTUA
 OBRA ZUZENDARITZA
 TRUSTENAK
MOBILA: 636-957 480
 Euzko Alkartasuna, 2


HERRI IKASTOLA
Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL. 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38


A&E
The Academy of English
 Justo kalea 3, Zarautz Ibai Onak pl. 8 Orio
 Tel. 943 00 42 44
 943 83 51 91


INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



Zelatungo zelaian

L 957. urteko irudia da gure orri artera oraingoan ekarri duguna. Iraila zen nonbait, eta ohitura zaharrari jarraituz, Ernioko mendi buelta egitera zihoan koadrila da goian ikus daitekeena.

Tontorrera bidean, metro gutxi zituztela, osasuna eta zorzea dakarten hiru uztai ospetsuetatik pasatzekotan ziren lagunak. Izan omen zituzten, ordea,

komeriak: adiskide bati delako uztai horietako bat ez gora eta ez behera geratu zitzaionean, aldaka parean.

Mendi gailurrean giroaz gozatuta, Zelatungo lepora jaitsi zen taldea eta bertan atera zuten goiko argazkia. Nahikoa dantza eta algara egin eta gero hartu zuten herriko bidea, gosez, indarrak berritzera.

Goitik hasita, ezkerretik eskubira hauexek dituzue argazkikoak: Sebastian

Iribar, Antonio Alonso, Agustina Iribar, Antonio Zumeta, Manolita Zumeta, eta ezezagun bat.

Behean, ezkerretik eskubira: Kontxita Eizagirre, Anita Iribar eta Lupe Iribar.

ARGAZKIA: KONTXITA EIZAGIRRE
INFORMAZIOA: KONTXITA
EIZAGIRRE ETA ANTONIO ZUMETA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

TAILER MEKANIKO A
MANTEROLA S/L
TYORROAK - BALBUAK

Santiago eztoa - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
E-NGE

ISO 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

LIZASO
dekorazioa

Ezko Gudariak 18, Tel: 943 83 01 84 Fax: 943 54 82

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12

KRITIKA



Herribil taldeko dantzariak saio bikaina eskaini zuten Herribil III ikuskizunean.

KARKARA

Herribil III, herria bildu hadi!

Urtea amaitzean dela egiten dute herriko zenbait taldek aurreko hamabi hilabeteen gainbegiratuak: dantza, antzerkia, argazkia, bertsoa... denak bilduta: Herribil.

Ezberdin hasi zen aurtengo saioa; ezberdin, apain, polit. Gazteenak izan ziren lehen minutuak. Lanerako duten gogoak erakutsi zuten, argazkien bidez. Urteko errepasoan, lekua irabazia zuten.

Aurkezleentzako sarrera etorri zen ondoren, berriz ere berak, Iban eta Gaiton, eta oraingoan ere, beren sola-

sean harrapatu gintuzten.

Dantza, musika, kantua eta bertso-antzerkia tartekatuta ziren gero. Kritikoa izan zen bertsolariena, arrazoi; baina norberak bere buruari barre egin behar izaten dio halakoetan.

Eskerrak ere izan ziren: Tibur Etxeberriari batetik, eta Mila, Mari Karmen eta Korori bestetik. Ximple. Emozionantea!

Hala ere, ez zen guztia hain polita izan. Izan ere, Karelana berogailua jarrita bazegoen ere, kanpoan bezain hotz zegoen barrua.

Txalo-zaparrada motzak; barre algaralotsatiak... ikusleak emanaldiari so zegoen, baina ez zitzaion ikusitakoa begietatik haratago joan, ez zuen sentitu. Ez zuen musikaren erritmoa gorputzean sumatu, ez zuen aulkitik altxatzeko zirkinik egin; isil-isilik, hotz.

Bada, zein gauza ederra den, besteen lanaz zurea balitz bezala sentitzea, ondo egingadako gauzak aitortzea, harro albokoari besarkada ematea, disfrutatzea, txoratzea. Hori falta izan zen.

LORE BERASALUZE

IKASLEAK IDAZLE



NEREA AIESTARAN |

DBH 4. MAILA

Aparkalekuak

Orion aparkalekuei dagokienez, nahiko egoera eskasean gaudela esan genezake. Alde batetik, aparkaleku kopuruaren murrizketa dago. Horren adibide argia da, moilako aparkaleku kopuruaren jaitsiera. Aparkaleku falta horrek hainbat ondorio sortzen ditu, besteak beste, jendeak autoa aparkatu ezin den lekuetan uztea, jende asko gogaitaraziz. Bestalde, herriko ia aparkaleku guztietan autoa edota beste edozein ibilgailu utzi ahal izateko denbora mugatua izan ohi da, ordu erdi, eta hortik gora edukiz gero, gidariak isuna ordaindu behar izaten du. Azkenik, OTaren ezarpena ere kontuan hartu beharra dago, orain arte hondartzako aparkalekuetan bakarrik ezarri den arren, herri osora zabaltzeko aukera asko daudelako, era berean, egun dauden arazoak ugarituz.

Hori guztia horrela izanik, Orion aparkalekuen egoera hobetzeko ahalegin bat edo beste berehala abian jartzea espero dut.

LURDES
ARRAZOEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Bal Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

943 83 09 84 aita Iertxundi, 36
ORIO

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Matxismoa feminismoarekin parekatzen da, eta gauza ez da horrela. Matxismoa dominazio bat da, ikuspegi bat zinean ulertzen den gizonek emakumeen gainetik egon behar dutela, zapalketa baten isla. Hori borrokatzea, eta feminismoak hori nahi du, ez da egoerari buelta ematea, parekidetasun egoera bat bilatzea baizik. Feminismoa zapalketa baten aurkako askapen mugimendua da.”

IBON

ARRIZABALAGA
DE MINGO

Berdintasun
teknikaria
Txaparro aldikaria
2007/12/21

OSPAKIZUNA



Victoria Dacota Conejo

Abenduaren 17an jaio zen goian duzuen txikia, Victoria Dacota Conejo Przybysz. Goizeko ordu txikietan hasi zen ate joka eta 05:55ean etorri zen mundura, 3,540 kg pisatzen zuela.

Alberto eta Monica gurasoek haurra zaintzeko laguntzailerik fina ere ba omen dute alboan. Izan ere, kontu kontari aritzen omen zaio Angelica, ahizpa zaharrenaren lanak txukun eta gustura egiten.

Zorionak, bada, familiari.

ZORIONAK!

Gure
laguntzaileei

Erraz esaten da: aurtengoarekin 19 urte dira Karkara sortu genuela; herriko gazte askorentzat pentsaezina da Karkararik gabeko Orio, betidanik ezagutu dute-eta. Aldizkariko zaharrenak ere harritu egiten gara atzera begira jarri eta egindako bidearen luzeaz ohartzen garenean. Nolanahi ere, oraingo honetan gure laguntzaile finetara zuzendu nahi dugu begiratua: urtea joan eta urtea etorri gurekin izan diren diru laguntzaile, iragarki jartzaile eta abarretara. Zuei esker egin dugu honainoko bidea eta zuei esker egingo dugu aurrerantzekoa ere. Mila esker, bihotzez.

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldizkako zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 48 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

OLIDEN
Arroztegia

ORIO

Eusko Gudari, 2
Tfnos: 943 83 10 86

Arroztegia MIRANDA
Jose M. Lasaola

farina, ato, leño, askakora...
behar diren azotz lanak
eguzi dituzte

Ordaineta bidea. 1 +655 42 52 70 > ZARAUZ

ile arazidegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel: 943 13 47 29
ORIO

485 zentimetroko korapilak
ARGIDENTAL HORTZ KLINIKA
Jl. Soulier doktorea

Oklonologia
Periodontia
Endokontzia
Implantologia

Prebentzio
Errehabilitazio
Hortz estetikak
Protesiak

Maria Etxebarri 1, Zarautz
943 15 92 78
clinicadentalsoulier@oninegoia.com

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

ORAIN DELA 25 URTE

Herriko ikastetxeek eraikin berriak estreinatu zituzten

Urtarrilaren 17an Zaragueta eskola berriak ateak zabaldu zituen, San Joan ermitaren azpian. Eskolak hutsik utzitakoa ikas-tolak hartu zuen, ordura arte, bertako irakasleek, horretarako prestatutako lokal, pisu eta baxuetan irakasten baitzieten haurrei. Ordutik aurrera, 9 gelatan emango zituzten klaseak.

EUSKADIKO SEI ORDUAK

Euskadiko V. Sei Orduak kirol-proba izan zen urtarrilaren 22an, Donostiako belodromoan. 8.000 lagunetik gora hurbildu zen ikuskizunaz gozatzeraz.

Ikuslegoa euskaldunen alde agertu bazen ere, Dietrich Thurauk eta Fritzek aurre hartu zioten Antxon Lekuona eta Pello Ruiz Cabestany gipuzkoarrei. Horrelaxe geratu zen sailkapena: Thurau-Fritz lehen postuan, 55 punturekin; Zoetemelk-Schumacher 2., 44 punturekin; Svendsen-Bausager, 3., 65 punturekin, itzuli batetara. Lehen euskaldunak Lekuona eta Ruiz Cabestani izan ziren, 5., 85 punturekin, 2 itzulitara.

Belodromoan bertan, Iñaki Perurenak mundu marka hautsi zuen, 281 kiloko harria 4 aldiz jaso.

ETB MARTXAN

Urtarrilaren 1ean, Euskal Teletestak lehen saioa eskaini zuen Durangotik. 4 ordu iraun zuen

1983
URTARRILA

Nafarroan, bi lurrikara izan ziren: Urtezahar egunean bata, urtarrilaren 1ean, bigarrena.

Epizentroa Iruñean izan zuten biek. Richter eskalan 3 eta 4 gradukoak izan ziren

Gabon jaietan, euskal familia bakoitzak 50.000 pezeta inguru gastatu zituen, horietatik 11.600-15.000 pezeta bitartean jostailuetan

emanaldiak. Karlos Garaikoetxealendakariaren urte bukerako mezua, euskarara itzulitako filmak eta kazetari euskaldunen mahai ingurua

eskaini ziren lehen saio hartan.

OSSIAN SARIA

1983ko *Ossian* nazioarteko saria Koldo Mitxelena Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Geografia eta Historia fakultateko katedradunarentzat izan zen. Sari hori hizkuntzalaritzan eta hizkuntza eta kultura minoritarioen azterketa eta sustapenean lan azpimarragarria egiten zuten elkarte edo lagunei eman zion Hamburgoko *Stiftung FVS Elkarte alemaniarra*.

NIÑOKO ZOZKETA

Espainiako Gabonetako loteriako zozketan ez genuen batere zorterik izan; gastatutako 6.000 pezetetatik 500 besterik ez ziren erreperatu. Orduan ere, San Ildefonsoko haurrek kantatzen zituzten zerbakiak.

Niñoko loterian, berriz, 3.000 milioi pezeta jokatu ziren Hego Euskal Herrian.

Lehen saria Teruelgo Andorran banatu zen oso osorik. 49.612 zerbakia izan zen saritua.

Bigarren saria, aldiz, A Coruña, Palma de Mallorca, Gava, Cuencak, Gradok, Malagonek eta Madrilek eman zuten, 46.612 zerbakia-rekin.

Hirugarren saria, berriz, Gallartara, Bizkaiara, joan zen. 39.195 zerbakiak dirutza utzi zuen herrian.

JAIOTAKOAK

- Itxaso Albeniz Sota, Orion, urtarrilaren 1ean.
- Unai Presa Azkue, Orion, abenduaren 23an.
- Oier Egia Madariaga, Orion, abenduaren 19an.
- Enara Garmendia Diaz, Orion, abenduaren 19an.
- Victoria Dakota Conejo Przybysz, Orion, abenduaren 17an.
- Haitz Makazaga Eizagirre, Orion, abenduaren 11n.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

HILDAKOAK

- Iñaki Iturralde Manterola, Orion, urtarrilaren 7an. 47 urte.
- Ramon Esnal Etxeberria, Orion, urtarrilaren 3an. 92 urte.
- Guadalupe Iribar Azkue, Orion, urtarrilaren 3an. 67 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: 943 83 15 27



Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontal ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

UNAI ILLARRAMENDI | DJ ILLARRAS

“Ez dut egiten dudana estilo jakin batean kokatzen”

Unai Illarramendik gustuko du biniloekin nahasketak egitea. Kosta tailerlean izan gara eta bertatik bertara ikusi ahal izan dugu zer egiteko gai den.

Oso ondo moldatzen zarela entzun dugu, baina ez omen daramazu denbora asko.

Urtebete egingo du hasi nintzela, iazko urtarrilean edo, Manex Barrenetxearekin erdibana plato para erosi nuen. Hura eta Azpeitiako lagun batek utzi zizkidan 20 biniloak izan ziren lehen ekipoa.

Hasieran zaila egin zitzaidan, probak egiten hasi eta *Hau nahasterik ba al zegok?* galdetzen nion nire buruari. Baina pixkanaka... *ttak!*

Orduak sartu eta probak egin ahala, jolastuz, abildadea hartzen joan nintzen. Nire ustez zerbait ikasi dut, harrezkero.

Lehen ekipoa diozu, beste bat ekarri al duzu ba?

Haiekin moldatu nintzen orain ditudan erosi nituen. Gogorragoak dira eta prezisio handiagoa ere badute nahasterako orduan; alde handia dago. Kontua da, bai Txixarron edota Pagoan horrelakoak dituztela eta, ikuskizuna haiekin egin behar dudanez, ba hobe zela neronen ekipoa propioa ere berdina izatea, ohitzeko eta zuzenekoetan desberdintasunik ez sumatzeko.

Garestiak al dira?

Sekulako potentzia du nahasketak mahaiak, ordaindu ere hala egin nuen... 1.300 euro. Plato bakoitza, berriz, 525 euro kostatzen zizkidan. Eta, azkenik, orratz bakoitzak 37 euro balio du. Baina merezi izan du erosteak.



Kosta tailerretako gela batean du bere txokoa DJ Illarrasek.

KARKARA

“Hasieran zaila egin zitzaidan, probak egiten hasi eta *Hau nahasterik ba al zegok?* galdetzen nion nire buruari”

Esan digutenez, Txixarron aritu zinen lehen aldian sekulako festa giroa sortu zenuen. Gainontzean, zuzeneko saio asko dituzu?

Txixarron festa polita sortu zen, bai. Chill Out izeneko aretoan aritu nintzen ostiral

“Ez dut egiten dudana estilo jakin batean kokatzen. Disko bat gustatzen bazait erosi eta erabili egiten dut, besterik gabe”

batean, udako gau batean Kalakarin, Zarauzko Morgan tabernan abenduaren 22an, Skammerren abenduaren 23an, Oiartzungo Pagoan Urtezahar gauetan...

Pagoan aritu izan naiz lehenago ere, arratsalde

batzuetan, egun berezietan, lagun baten urtebetetzeagatik-edo, hango aretoa alokatu izan dugunetan.

Gustuko DJrik edo erreferentziarik baduzu?

Erreferentziak... Errenteria-ko Jantxi aipatuko nuke, harekin ikasi baitut. Pagoan pintxatzen zuen eta orain gutxi Txixarron hasi da tipoa, nahiz eta, tarteka, Pagoan ere aritzen den.

Askotan deitzen dizute lokaletan eta pintxatzeko?

Lasarteko taberna batean aritzeko deitzen dit tarteka Jantxi, Pagoakoek ere esan izan didate, Morganekoek deitu eta lasai azaltzeko, Oiartzungo taberna batetik datozen inauterietarako... askorik ez, baina zerbait bai.

Estilo jakin bat edo lantzen duzu?

Elektroa, elektro minimala, techno piska bat... Baina ez da erraza definitzen. Horregatik ez dut egiten dudana estilo jakin batean kokatzen. Disko bat gustatzen bazait erosi eta erabili egiten dut, besterik gabe.

Gainera, ikasten ari naiz eta, oraindik, goizegi da esateko zer egiten dudana eta zer ez.

Bukatzeo, nola antolatzen duzu saio bakoitza?

Ez dut ezer alde aurretik prestatuta eramaten. Akaso, hasierako bizpahiru kantak. Lasai antzera hasten naiz gero erritmoa gogortzen hasteko. Baina, gainontzean, batere ez. Dagoen jendearen edo giroaren arabera, hau edo bestea jarriko dut.

Momentuan ateratzen zaidana egiten dut, hartu eta jarri, besterik gabe.

TREN ORDUTEGIAK

ZARAUTZ - DONOSTIA

Table with 14 columns showing train departure times from Zarautz to Donostia. Rows include Zarautz, Zarautz San Pelaio, ORIO-AIA, Usurbil, Donostia Errekalde, Donostia Añorga, Donostia Lugartiz, and Donostia.

DONOSTIA - ZARAUTZ

Table with 14 columns showing train departure times from Donostia to Zarautz. Rows include Donostia Amara, Donostia Lugartiz, Donostia Añorga, Donostia Errekalde, Usurbil, ORIO-AIA, Zarautz San Pelaio, and Zarautz.

AUTOBUS ORDUTEGIAK

Astegunetan

Table with columns for Donostia, Oriu, Aia, Zarautz, and Donostia, showing bus departure times on weekdays.

Asteburuetan

Table with columns for Donostia, Oriu, Aia, Zarautz, and Donostia, showing bus departure times on weekends.

ITSASOIA

Table with 4 columns: Urtarrila, Itsasgora, Itsabehera, and Ilargia, listing ferry schedules.

ZAINTZAKO BOTIKAK



URTARRILA

- List of pharmacy numbers for the month of January, including locations like Larrañaga, Lasa, and Zarautz.

- List of pharmacy addresses for the month of January, including locations like Azaldegia, Etxebarria, and Mutiozabal.

BINGOA

■ Urtarrilaren 16an, 23an eta 30ean Zaharren Babes Lekuak antolatuta, bingo saioa. 16:30etik 18:00etara kultur etxean.

URTEKO BATZARRA

■ Urtarrilaren 25ean, Zaharren Babes Lekuko en urteko batzarra. 17:30ean kultur etxean.

ZINE FORUMA

■ Urtarrilaren 11n, OZK taldeak antolatuta, Jo Sol zuzendariaren *El taxista ful* filma. 22:00etan kultur etxean.

ARETO FUTBOLA

■ Urtarrilaren 12an, 1. nazional kategorian: Ancla Dosanpor-Orioko tabernak. 2 kategorian: Orioko tabernak-Tecnun.
■ Urtarrilaren 19an, 1. nazional kategorian: Orioko tabernak-Ortiziri Comodon. 2. kategorian: Orioko tabernak-Denak taberna.

ESKUBALOIA

■ Urtarrilaren 12an, infantilean: Xurumurru-Tolosa.
■ Urtarrilaren 19an, infantilean: Leitzaran-Xurumurru.

HITZALDIA

■ Urtarrilaren 14an,

**Arrain eta ardo bidea**

Talai mendi elkarteak Arrainaren eta Ardoaren bidea (Oiondik Bermeora doan GR-38 ibilbidea) egingo du aurten. 7 etapa izango dira guztira, uztaila bitartean egitekoak, eta hilaren 13an izango da horietako lehenena: Oion-Biasteri. Irteera, 07:00etan izango da, autobus geltokitik.

Parte hartzeko, derrigorrezkoa da federatua egotea.

Esperientzia eskolaren baitan, hitzaldia. Gaia: Bizitzako azken uneak. Hizlaria: zainketa aringarrietan espezialista den Lori Thomson psikologoa. 14:30etik 16:30era.

FUTBOLA

■ Urtarrilaren 12an,

regionalean: Orio-Mutriku. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Orio-Hernani. Kadeteen, Kopa: Orio-Sanse. Emakumezkoetan, Kopa: Orio-Luberri. Kadete neskek txapeldunen fasean: Hernani-Orio.

■ Urtarrilaren 19an, regionalean: Martutene-Orio. Jubenilean, Kopa eta

jaitsiera: Martutene-Orio. Kadeteen, Kopa: Martutene-Orio. Emakumezkoetan, Kopa: Ordizia-Orio. Kadete neskek txapeldunen fasean: Orio-Zarautz.

PLAIEROAK

■ Urtarrilaren 13an, Kupela-Xixario. Zarauzko hondartzan, 12:30ean.
■ Urtarrilaren 27an, Aranola-Xixario. Zarauzko hondartzan, 12:30ean.

BATZARRA

■ Orion, urtarrilaren 18an, Udalbiltza auziko auzipetuek deituta, eskualdeko batzarra. Gaiak: aurkezpena, Udalbiltzaren aurkako epaiketa eta aurrera begirako planak. 19:30ean kultur etxean.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, urtarrilaren 16an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira eta udaletxean abisua eman. Trasteak jasotzera etxeraino joatea nahi baduzu, deitu 902 54 06 54 zenbakira.

PIRRITX ETA PORROTX

■ Orion, urtarrilaren 25ean. *Eskerririk asko* ikuskizun berriaren aurkezpena Karelana. Sarrerak Ikastolan eta Gelaton salgai, 5 euroan. Aian: kultur etxean salgai.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Zerbait saldu edo erosi, oparitu, lan eskaintzak, etxea alokatu... nahi baduzu, KARKARAN duzu iragarkietarako txoko berri hau.

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu:

karkara@karkara.com.
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

SALGAI

■ Dragon Invacare markako gurpildun aulki elektrikoa eta ranpak salgai. Berriberria dago dena. Prezioa: 300 euro. Tel: 943 83 27 63.

LAN ESKAERAK

■ Norbaitek zure proposamena irakurri eta datozen hilabeteetarako lanerako deituko balizu? Aukera bat gehiago izan dezakezu iragarkia hemen jarrita.

ALOKAIRUA

■ Hauxe izan daiteke bila zabilzan pisua topatuko duzun txokoa.

SALEROSKETAK

■ Batek daki ez ote duzun hemen salduko garajeen hainbesteko traba egiten dizun motorra.
■ Edo auskalo, akaso mezu hauxe irakurriko du zuri hainbeste interesatzen zaizun auto merke baten jabeak.

LAN ESKAINTZAK

■ Tabernariak, sukaldariak, peoiak, ofizialak, monitorea, irakasleak, ingeniariak... Denetariko irakurleak ditu KARKARAK. Agian, hemen topatuko duzu lanerako bila zabilzan pertsona hori.

GALDUTAKOAK

■ Aurkitutako edo galdutako en berri eman nahi duenak, izango du toki egokia aurrerantz.

